



Beasaingo Udala

		ESP. KODEA.	2024HIEU0004
ESPEDIENTEA	HITZARMENAK: EUSKARA		
TITULARRA	YON ALDANONDO ALBISU		
TOKIA	BEASAIN		

**BEASAINGO UDALAREN ETA GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.REN ARTEKO
HITZARMENA DIRULAGUNTZA NOMINATIBOA JASOTZEKO**

Beasainen, 2024ko ekainaren 6an.

HONAKOAK BATZARTUTA:

Alde batetik, LEIRE ARTOLA UGALDE andrea, Beasaingo Udaleko Alkate-Presidentea, 35779121E NA zenbakiduna, BEASAINGO UDALAREN ordezkari gisa (IFK: P2002100B, hitzarmen honen helburuetarako helbidea: San Martin plaza, 1, PK 20200, Beasain), 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21. artikuluan esleitzen dizkion ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoarekin esku hartzen duena.

Bestalde, GOIHERRIKO IKUSKARI S.L. B20806840 IFK zenbakiduna eta egoitza Ordizian duena, Mallutz kaleko 18 zenbakian, egintza honetan Yon Aldanondo Albisu jaunak ordezkaturik, adinez nagusia dena, 34108860K NA zenbakiduna, helburu hauetarako helbidea Ordiziako Mallutz kaleko 18 zenbakian duena.

Esku hartzaileek nahikoa gaitasun aitortzen diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko dituzten erakundeen izenean hitzarmen hau izenpetzeko eta, helburu horretarako,

HONAKO HAU ADIERAZI DUTE

- 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 22.2.a) artikuluan aurreikusten du toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako dirulaguntzak zuzenki emateko aukera.
- 38/2003 Legeak, diru laguntzen lege orokorrak, 28. artikuluan xedatzen du hitzarmena izango dela toki erakundeen aurrekontuetan modu nominatiboan aurreikusitako dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.
- Beasaingo Udaleko 2024rako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean diru laguntza nominatibo bat aurreikusi da GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.-ren alde, Beasainen euskararen erabilera sendotzeko helburuarekin.



Beasaingo Udala

- IV) GOIHERRIKO IKUSKARI-k garatzen dituen jarduerak eta dirulaguntza honen xede direnak Beasaingo Udalaren dirulaguntzak emateko eskumenen alorren barne daude, Beasaingo udalerrian euskararen erabilera normalizatzeko helburua duen proiektua baita eta, ondorioz, udalari dagokion eskumena da, honakoetan xedatutakoaren arabera: 7/85 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 25.2.m) artikuluan xedatutakoa; 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 17.1.26) artikuluan xedatutakoa; Beasaingo Udaleko 2024rako aurrekontuaren transferentzia arrunten eranskinean xedatutakoa; 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan xedatutakoa, Alkatetzaren 2022ko abenduaren 13ko 2022/1979 Ebazpen bidez onartu zena, **EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEA** helburu estrategiko gisa ezarrita eta, hartara, dirulaguntza hau 3. ildoaren 3.2 jarduketan barne hartuta.

Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaz hitzarmen hau izenpetu da jarraian adierazitako klausulen arabera.

KLAUSULAK

LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA.

Hitzarmen honen xedea da GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.-ri 41.631,00 euroko dirulaguntza nominatiboa ematea jarraian adierazitako jardueren garapen eta egikaritzetik eratorritako gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin:

1. GOIERRI IRRATI TELEBISTA

Goierri Irrati Telebista euskaraz eta euskararen alde ari den toki komunikabidea da, informatu eta aisialdirako saioak egiteko helburuarekin. Telebistarekin hasi eta irrati, web eta sare sozialek osatzen dute Goierri Irrati Telebistaren eskaintza.

Goierri Telebistak %100ean emititzen du euskaraz. 4 orduko emisio bloke bat du baina etengabe emisioan dagoena, etengabe berritzen dena, hau da emititzen ari den bitartean, aldagarri da eta egunean zehar aldaketa ugari izaten ditu parrilak. Berak sortutako produkzio propioaz gain Tokikom sareko saioak emititzen dituzte. Bailerako beste hedabideekin batera saioak egiten dituzte eta Tokikom barruko telebistak eskaintza bateratuak eta saio bateratuak egiten ere bai.

Saioak:

Saioa	Deskribapena	Eguna
Gaurkoan	Informatiboa	Egunero
Goierri kirolean	Asteburuko kirol saioekin egindako saioa. Erreportajeak, laburpenak eta elkarrizketak	Astelehena
Onein	Sukaldaritza saioa, Goierriko sukaldariekin platoan grabatutako saioa	Asteartea



Beasaingo Udala

Urrutiajunbe	Goierriko eragileekin elkarrizketa saioa	Asteazkena
Lehen lerroan	Goierriko artistekin elkarrizketa eta kontzertu grabaketak	Asteazkena
Erreportai	Gai desberdinei buruzko erreportajeak	Osteguna
Ikusi irratia	Irrati saioan grabatutako elkarrizketak	Osteguna
Non dago Miru	Ipuin, txotxongilo eta magia saioa haurrentzat	Ostirala
ENG	Elkarrizketa luzeak	Larunbata
Zuzenekoak UM	Ekitaldiak, futbola, errugbia, pilota	Igandea, larunbata
Plenoak eta ekitaldiak		
Tripazorri	Elikadura saioa. Aholkuak, Produktu ekologikoekin sukaldean egiten da.	Asteazkena

TOKIKOM sarean elkarlanean egiten diren saioak:

Goiena telebista	Kulturrizketak Arte eta kultura adierazpen askotarikoen sortzaileekin solasaldiak.
	Galdegazte Debagoiena eskualdeko ikastetxeetako gazte-nerabeek aukeratutako Euskal Herriko famatuak, gazteek beraiek elkarrizketatuta.
	Amaia DJ Musika saioa. Ikus-entzule gazteekin komunitatea osatuz, gazteek haiek eskatutako bideoklipak aurkezten ditu saioak.
	Kantari Debagoieneko ikastetxeekin elkarlanean. Gaztetxoentzako karaokea.
Oizmendi Telebista	Berbetan Elkarrizketa saioa. Kultura, kirola, ingurumena, gizartea eta antzeko gaiak ardatz hartuta.
	Ikusmira Era askotako gaiak jorratzen dituzten erreportajeak lantzen dira saio honetan.
	Klaketa Zinea ardatz duen saioa.
28 kalana	28 KLIP Nazioartean arrakasta izan duten bideoklipak eta inguruko taldeenak



Beasaingo Udala

	eskaintzen dituzte.
	Adi iskanbila Gazteei zuzendutako saioa. Musika taldeei elkarriketak egiten zaizkie.
	Leihotik begira Elkarriketa saioa da. Herriko plazan herriko pertsonaiak elkarriketatzen dira.
	Bereziak Eskualdeko herri ezberdinetan aurkitu ditzakegun festen inguruko erreportaje bereziak, ekitaldi kultural garrantzitsuen jarraipena ...
Xaloea telebista	Ur eta Lur Nekazaritza-abeltzaintza inguruko elkarriketak.
	Ikusten Aktualitateko gai baten inguruko elkarriketa.
	Nire herrie Nafarroako herri bati ematen zaio protagonismoa eta herritarrek aurkezten dute.
Erlo telebista	Eider Uribarrirekin elkarriketak Gazteei begira egindako saioa, nerabeei gehienbat. Gonbidatuei elkarriketak eta bideoklipak.
	San Agustineko elkarriketak Erlo telebistak, Uztarriak eta Urola Kostako Hitzak elkarlanean egindako saioa da.
	Kanpoko grabaketak Bailan sortzen diren ekitaldien grabazioa.

- **Programazioa egiteko irizpideak.**

Informazioaren oreka mantentzen zorrotz saiatzen dira, iritziak kontrajarriz eta iritzi emaileari berea emateko aukera emanez. Saioak egiteko garaian adin guztietako ikus-entzuleengana iristeko ahalegina egiten dute eta bereziki gazteei begira. Gazteak euskararen etorkizuneko oinarri izango direla kontuan hartuta ahalegin berezia egiten dute beraientzako interesekoak diren edukiak lantzen. Genero berdintasuna ere kontuan izaten da

Gazteak protagonista ere badira programazioan. Forma aldetik gaztea azkartasuna eta eduki freskoak hartzen ohituta dago, eta ondorioz programazioan eduki laburrak, telebistaz ikusteaz gain beste edozein aplikaziotan ikus daidetezkeen edukiak behar dira eta muntaia azkar eta dinamikoak.



Beasaingo Udala

- **Telebistaz gaindiko zabalkundea.**

Web orria: gitb.eus telebistaren beste adarra da eta garrantzia handikoa. Ikus-entzunezkoari erabat lotuta daukate: erreportajeak eta saioak zintzilikatzen dituzte. Telebistaren zuzeneko emisioa ere ikus daiteke etengabe. Eta kanpoko zuzeneko emisioak gero eta gehiago egiten dituzte.

infosare.eus komunikazio taldeko ataria ere badute.

FACEBOOK: Lanketa espezifikoak eskatzen du testua, argazkia eta bideoa lantzea eskatzen du eta saioak iragartzeko erabiltzen dute.

TWITTER: Azkarra eta zuzena. Kanpoko ekitaldietan erabiltzen dute, telebistan etorriko denaren aurrerapen moduan. Eta baita saioen zabalkundea egiteko ere.

INSTAGRAM: Gaztetxoaren artean duen arrakasta ikusita gero eta gehiago erabiltzen dute. Berri motzak eta web orriarekin lotura eta lehiaketa txiki batzuk egiten dituzte.

RESSPONSIVE: Ikus-entzunezkoak ordenagailuz ikusteaz gain, prestatuta daude mugikor eta tabletetan ikusi ahal izateko.

IRRATIA: Musika du ardatz eta bezeroei publizitate eskaintza borobiltzeko ere erabiltzen dute.

- **2023 URTERAKO ERRONKAK**

- **Seinalea hobetu.** Emisio automatizatua berritzeko prozesuan ari dira. Seinalea digitalizatu egin dute eta etxeetara seinale digitala irits dadin pausuak ematen ari dira.
- **Elkarlana Goiena Telebistarekin.** Infosare eta Goiena elkar harturik aurtengo Gipuzkoarako telebista eskaintza bateratua martxan jarri nahi dute.
- **Inbertsioekin etekin gehiago.** Egindako inbertsioei esker zuzeneko lanak kalitate handiagoarekin egingo dituzte.
- **Smartphoneak telebista egiteko.** E-mailak onak ematen ari da eta horretan sakondu nahi dute. Smartphonekin telebista nola egin prestakuntza jasotzen ari dira Goienarekin batera.
- **APP eta HBBTV:** Aurtengo telebistarako app-a garatuko dute Tokikom taldean. Erreportajeak aplikazio bidez ikusi ahal izango dira eta telebista ikusteko aukera berri bat eskainiko du. Telebista internetara konektatuta duenak nahieran izango du Goierri Telebista.

Aipatutako jardueren egikaritzeak suposatuko duen aurreikusitako gastu osoari erantzuteko Beasaingo Udalak biztanleko hiru euroko dirulaguntza emango dio.

BIGARRENA. BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK.

Beasaingo Udalaren betebeharra da adostutako zenbatekoa duen dirulaguntzaren ordainketa burutzea GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.-ren alde, hitzarmena sinatu ondoren, hitzarmen honen hirugarren klausulan adierazitako ordainketa modua baliatuta.



Beasaingo Udala

GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.-ren betebeharrak dira:

- 1) 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, diru laguntzen lege orokorrak, 13. artikuluan xedatutako onuradun izateko debekuetan adierazitako egoeretan ez egotea, une honetan eta hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, eta Udalarekiko zerga betebeharrak egunean izatea.
- 2) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- 3) Udal organo eskudunak edo udal kontu hartzaileak burututako egiaztapen eta kontrol jarduketak onartzea, organo hauek, emandako zenbatekoen erabileraren fiskalizazio eta kontrolerako eginkizunak baliatuta, eska diezaioketen informazio guztia emateko betebeharra izanda, 38/2003 Legean xedatutakoaren arabera.
- 4) Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko jasotako bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak. Jakinarazpen hori laguntzak ezagutu bezain laster burutu beharko da eta, edonola ere, jasotako funtsei emandako erabileraren justifikazioaren aurretik.
- 5) Diruz lagundutako jarduerak burutzea.
- 6) Jasotako funtsen erabilera justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, kontrol eta egiaztapen jarduketan helburu izan daitezkeen heinean.
- 7) Diruz lagundutako jardueren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala adierazi eta hedatzea, Beasaingo Udalak helarazitako anagrama eta logotipoak karteletan, oroipen plaketan, inprimatutako materialetan, bitarteko elektroniko eta ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetako aipamenetan erabilia.
- 8) Dirulaguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funts publikoak itzultzea.
- 9) Eginkizunen garapenean eragin litezkeen kalte guztiak estaltzeko moduko erantzukizun zibileko poliza bat izenpetzea.
- 10) GOIHERRIKO IKUSKARIk euskararen erabilera sustatuko du programatutako jardueretan. Betiere honakoak kontuan hartuta: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa; indarrean dagoen Euskararen Erabilera Sustatu eta Normalizatzeko Udal Ordenantza; eta Beasaingo Udalaren Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.
- 11) GOIHERRIKO IKUSKARIk kontuan hartuko ditu berdintasun irizpideak (1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena) bai elkartearen baitan zein sustatutako proposamenen egikaritzean ere.

HIRUGARRENA. DIRU LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA.

Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako jarduerak garatzeko helburuarekin, Beasaingo Udalak, GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.-ren aldeko dirulaguntza nominatibo gisa, 41.631,00 euro ordainduko ditu.

41.631,00 euroko zenbatekoa ondoren zehazten den moduan egingo da:

- Dirulaguntzak %50a (20.815,50 €) hitzarmena sinatu ondoren ordainduko da.



Beasaingo Udala

- Gainerako %50a (20.815,50) 2023ko irailaren 30ean, ordainketa aurreratu gisa, betiere egiaztatu bada zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22 artikuluan eskatzen den egiaztapena, dagokion Ogasunarekiko zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen inguruan, Udalak egiaztatuko du datuen bitartekaritzarako plataformetan edo horretarako gaitutako beste sistema elektroniko batzuetan kontsulta eginez.

- Hala ere, onuradun eskatzaileak berariaz egin ahal izango dio aurka egiaztapen horri; kasu horretan, izaera hori egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu bere kabuz.

- ☐ - Onuradunak uko egiten dio aipatutako egiaztapen automatikoari.

Hitzarmenaren xede den dirulaguntza jaso ahal izateko, onuradunak ez du inolako bermerik eskaini beharko.

Hitzarmen honen xede den dirulaguntza 2024 ekitaldirako indarrean dagoen aurrekontuko 0230.471.335.40.02 partidari egotziko zaio, behar bezalako nahikoa kreditu duena.

LAUGARRENA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagundu daitezke erabat beharrezkoak diren gastuak, jardueraren izaerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta diruz lagundutako jarduerak egikaritzeko aurreikusitako epearen amaiera baino lehen sortzen direnak. Honela, diruz laguntzeko moduzkotzat joko dira 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean proiektuaren garapen eta egikaritzetik sortu edo eratorritako gastu arrunt guztiak, betiere aldi horretan zehar modu eraginkorrean egikaritu badira. Egikaritutako gastu gisa ulertuko da hitzarmen honetan ezarritako justifikazio epea amaitu aurretik modu eraginkorrean ordaindu dena.

Ez dira inolaz ere diruz laguntzeko moduko gastuak izango:

- a) Banku kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekariguak eta zigor administratibo edo penalak.
- c) Prozedura judizialeko gastuak.
- d) Zuzeneko zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke.
- e) Errentaren gaineko zergak.

BOSGARRENA. BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN.

Dirulaguntza hau bateragarria izango da helburu bera duten dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztiekin, edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk emandakoak, edo Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak badira ere.

Zentzu horretan eta dirulaguntzen Lege orokorraren 19.3 artikuluan xedatutakoa betez, jasotako dirulaguntza guztien zenbatekoa ez da inolaz ere izango, bere horretan edo



Beasaingo Udala

beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

Jarduerak finantzatzeko, dirulaguntzaz gain, funts propioak edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuk erabili badira, justifikazioan diruz lagundutako jardueretarako erabilitako funts horien zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa zehaztu beharko dira.

SEIGARRENA. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

Ezarritako baldintzak bete izanaren eta emakidan aurreikusitako helburuak lortu izanaren justifikazioa dokumentatu egingo da justifikatzeko kontu emate baten bitartez. Kontu emate hori onuradunaren derrigorrezko egintza izango da eta barne hartu beharko ditu, deklaratailearen erantzukizunpean, dirulaguntzaren helburua bete dela egiaztatzea ahalbidetzen duten gastu egiaztargiriak edo balio juridikoa duen beste edozein dokumentu. Justifikatzeko kontu ematea burutu beharko da 2025eko martxoaren 31 baino lehen, Udalaren aurrean aurkeztuta emandako dirulaguntzaren erabilera justifikatzeko dokumentazio hau:

- 1.- Burututako jardueren memoria.
 - 2.- Jardueren gastuaren justifikazio txostena, honako edukiarekin:
 - a) Gastuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta kontzeptua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adieraziko duena, diruzainak sinatuta.
 - b) Fakturak edo Merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten eta administrazio-eraginkortasuna duten froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentu guztiak ere, aurreko a) letran aipatzen den zerrendan sartutakoak.
 - c) Diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, hau da, obra-kontratuen kasuan 39.999,00 euroko (BEZik gabe) eta hornidura- eta zerbitzu-kontratuenekoan 14.999,00 euroko (BEZik gabe) zenbatekoak, onuradunak hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, obrarako konpromisoa hartu, zerbitzua eman edo ondasuna entregatu aurretik, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago halako zerbitzurik eskaintzen duen nahikoa erakunde, edo salbu eta gastua dirulaguntzaren aurretik egin bada. Efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko da aurkeztutako eskaintzen artean (justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskabidean aurkeztu beharko dira), eta berariaz justifikatu beharko da memoria batean proposamen ekonomikorik onena aukeratzen ez denean.
- Dirulaguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi dirulaguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak, 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotzen den moduan .
- Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.
- d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarrera edo diru-laguntza guztien erantzukizunpeko adierazpena, erakundearen diruzainak sinatutakoa, horien zenbatekoa eta jatorria adierazita.
 - e) Likidazio ekonomikoa sinatuta.



Beasaingo Udala

ZAZPIGARRENA. JARRAIPEN, ZAINZA ETA KONTROL MEKANISMOAK.

Jarraipen Batzorde Misto parekide bat sortuko da, alderdi sinatzaile bakoitzaren aldetiko ordezkari banarekin, Udaleko Alkateak eta erakunde onuradunaren organo eskudunak izendatuko dituztenak, eta batzorde horren helburuak izango dira hitzarmena sustatzea eta haren jarraipena burutzea, ager litezkeen zalantzak argitzea eta hitzarmena ebaluatzea.

Batzorde honek eginkizun hauek izango ditu:

- Hitzarmenaren eta sinatzaileek izenpetutako konpromisoen egikaritzearen zaintza eta kontrola.
- Hitzarmenaren egikaritzean ager litezkeen interpretazio eta betetze arazoak ebaztea.

Hitzarmen honetan berariaz aurreikusi ez diren kasuetarako, batzordea arautuko da, 40/2015 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak, 15. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, administrazio publikoetako kide anitzeko organoen funtzionamendua arautzen dutenak, alegia.

Beasaingo Udalak eta GOIHERRIKO IKUSKARI E.M.-k solaskide bana izendatuko dute eguneroko jardunean elkarri jakinarazi beharrekoak jakinarazteko eta elkarrekin adostu beharrekoak adosteko. Solaskideak Beasaingo Udaleko kultura eta euskara teknikaria eta GOIHERRIKO IKUSKARI S.L-ko kudeatzailea izango dira.

ZORTZIGARRENA. ONARTUTAKO BETEBEHARRAK ETA KONPROMISOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOAK.

Sinatzaileetako batek onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, ez betetzea burutu duen alderdiari jakinarazpena helarazi beharko zaio, epe jakin baten barruan bete ez direla uste den betebeharrak eta konpromisoak bete ditzan. Ezarritako epea amaituta, ez betetzeak jarraituko balu, hitzarmena suntsiarazi egingo da.

Diru-laguntzaren onuradunak onartutako betebeharrak eta konpromisoak beteko ez balitu, emandako zenbatekoaren zati proportzionala itzuli beharko du, gehi diru-laguntza ordaindu zen momentutik dagozkion berandutze interesak, 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan jasotzen den moduan .

Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo udal kontu hartzailetza edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira, bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere.

BEDERATZIGARRENA. HITZARMENA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK.

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Ezarritako indarraldia amaitzea, hau da, 2024ko abenduaren 31.
- Alderdi sinatzaileen arteko ahobatezko akordioa.
- Alderdietako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.



Beasaingo Udala

- Hitzarmena baliogabetzat jotzen duen erabaki judiziala.

Hitzarmena suntsiarazteak azkendu egingo ditu alderdiek onartutako betebeharrak eta konpromisoak, eta baita prestazioen likidazioa ere. Helburu horietarako, aplikagarria izango da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 52. artikuluan xedatutakoa, suntsiaraztearen ondorioei eta likidazio eta kalte ordainen araubideari dagokienez.

Hitzarmenaren helburuak bete direla ulertuko da haren xedea burutu bada bi alderdientzat onargarriak diren baldintzetan.

Egikaritze prozesuan dagoen jarduketarik egongo balitz, alderdiek, jarraipen, zaintza eta kontrol batzordearen proposamenari jarraituta, abian dauden jarduketan jarraipena eta amaiera adostu ahalko dute, horiek amaitzeko epe luzezina ezarrita.

HAMARGARRENA. DATU PERTSONALEN BABESERAKO ARAUBIDEA.

Datuen babeserako araubideari dagokionez, Udalak eta GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.-k 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, aurreikusitako derrigorrezko xedapenak errespetatu beharko dituzte.

Beraz, hitzarmenaren garapenaren ondorioz jasotzen diren datu pertsonalak alderdi sinatzaileen erantzukizunpekoak diren datu fitxategietan sartuko dira eta hitzarmenean aurreikusitako obligazioak betetzeko soilik tratatuko dira.

HAMAIKAGARRENA. HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Hitzarmen honen indarraldia sinatzen denetik 2024ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da eta ez du luzapenik onartzen.

HAMABIGARRENA. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA.

Hau izango da legeria aplikagarria:

- Udalaren Aurrekontu Orokorra, Beasaingo Udaleko Osoko Bilkuraren 2023ko abenduaren 5eko Akordio bidez onartu zena.
- Beasaingo Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa, 2023-2025 aldirakoa, Alkatetzaren 2022ko abenduaren 13ko 2022/1979 Ebazpen bidez onartu zena.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.



Beasaingo Udala

- Beasaingo Udaleko dirulaguntzen udal ordenantza arautzailea, Osoko Bilkuraren 2006ko azaroaren 30eko Akordio bidez onartu zena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, 4. artikuluan berariaz xedatutakoaren arabera, hitzarmenak legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen, lege horren printzipioak ager litezkeen zalantzak eta gabeziak argitu eta osatzeko aplikagarriak izan arren.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da alderdien artean ager litezkeen interpretazio, arazo eta egikaritze gaiak ebazteko eskuduna.

HAMAHIRUGARRENA. BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.

GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.-k hitzarmen honetatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu, baina haren langileek ez dute inolaz ere izango lan arloko loturarik edo lotura juridikorik Beasaingo Udalarekin.

GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.-k, hitzarmen honetatik eratorritako jardueren garapenean, errespetatu egingo du 1/1996 Lege Organikoak, adingabearen gaineko babes juridikoari buruzkoak, xedatutakoa eta, zehazki, haren 13.5 artikuluan eskatutako akreditazioari dagokionez, adingabeekin harremana dakarten lanbideak, ogibideak eta jarduerak burutzeko kasuan.

HAMALAU GARRENA. DIRULAGUNTZA ITZULTZEA.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erreglamenduaren 90. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak jasotako zenbatekoa modu boluntarioan itzuli ahalko du, Udalak aurretiaz halakorik eskatu gabe.

Kasu horretan, dirulaguntzaren onuradunak Beasaingo Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreran zehaztu beharko dira diruz lagundutako jardura, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

Dirulaguntzaren justifikazioa aurkeztu ondoren zuritutako kopurua konprometitutako gastua baina txikiagoa balitz, dagokion diru kopurua itzultzeko eskatuko dio Udalak GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.-ri, eta kopuru horri berandutze-interesak gehituko zaizkio.

HAMABOS GARRENA. GATAZKAK EBAZTEA.

Hitzarmen honen aplikaziotik erator litezkeen interpretazio, aldaketa, suntsiarazte eta ondorioen inguruan ager litezkeen gatazkak alderdien arteko akordio bidez ebartziko dira eta, halakorik ezean, alderdi hauek administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren eskumenekoak izango dira.

Adierazitakoaren arabera eta sinatzaileei dagozkien ahalmenak baliatuta, hitzarmen hau izenpetu dute, bi aletan, goiburuan adierazitako tokian eta datan.

Leire Artola Ugalde

Alkatea

BEASAINGO UDALA

Yon Aldanon Albisu

Ordezkaria

GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.



Beasaingo Udala

**DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN AURREKONTUA
2024. URTEA**

Aurrekontua 2024	497.921,00
GASTUAK	
LANGILE GASTUAK	289.254,00
Ordainsariak	222.502,00
Gizarte Segurantza	66.752,00
FUNTZIONAMENDUA	65.293,00
Alokairua	16.595,00
Zergak	12.859,00
Garbiketa	1.502,00
Bulego materiala	6.254,00
Mantenimendua eta matxurak	9.326,00
Beste profesionalak	12.969,00
Beste zerbitzuak	5.788,00
PRODUKZIO GASTUAK	133.658,00
Tokikom sarea	68.400,00
Kanpo produkzioak erosketak	65.258,00
PRODUKZIO BANAKETA GASTUAK	9.222,00
SARRERAK	494.865,00
FUNTZIONAMENDU PROPIOA	232.422,00
Produktu salmenta	68.400,00
Publizitate pribatua	164.022,00
FINANTZAKETA PUBLIKOA	262.443,00
Udalak	89.000,00
HPS	173.443,00

Erantzukizunpeko aitortpena

--	--



Beasaingo Udala

Izen-deituraK	Yon Aldanondo Albisu		
Nortasun agiriaren zenbakia	34108860K		
Helbidea	Mallutz kalea 18		
Posta kodea	20240	Herria	Ordizia

Erakundearen izena	GOIHERRIKO IKUSKARI S.L.		
IFZ	B20806840		
Helbidea	Mallutz kalea, 18		
Posta kodea	20240	Herria	Ordizia

Dokumentu honen sinatzaileak aitortzen du:

- Berak ordezkatzeko duen erakundea ez dagoela sartuta onuradun izateko 2017ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12. Artikuluan adierazitako inolako debekutan.
- Berak ordezkatzeko duen erakundea ez dagoela sartuta onuradun izateko arau hauetan aurreikusitako debekuetan eta gaitasungabetzen duten zirkunstantzietan: 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoa 12. Artikulua-; 2015eko martxoaren 9ko 2/2015 Foru araua, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa -26.3 artikulua-; eta, indarrean dagoen gainerako araudia.



EKS | CSV: ESKU9a6907a3-25fc-4e41-9d90-253ceecb9bb2

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>